

Maiatzaren amaieran, langileen % 48,4k eguneratuta zituzten hitzarmenak

- Gaur egun, 2025eko indarraldia amaitu ondoren, 86.000 pertsonari baino gehiagori eragingo dieten akordioak negoziatzen ari dira.
- 2025. urtea iraungita zeuden hitzarmenak zituzten pertsonen kopuru txikienarekin itxi zen (% 4,5).

Bilbo, 2026ko uztailaren 8a. 2025. urtea langileen % 63,8k hitzarmenak eguneratuta zituztela itxi zen. Ekitaldia ere iraungita zeuden hitzarmenak zituzten pertsonen kopuru txikienarekin itxi zen (% 4,5). 2026. urtean ere, aurreko ekitaldietan bezala, akordioaren bideari eutsi zaio.

Datu horiek **Emilia Málaga Pérez** Lan Harremanen Kontseiluko (LHK) presidenteak eman ditu jakitera gaur goizean Bilbon, hain zuzen ere "Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak EAEn 2025ean" txostenaren aurkezpenean –Kontseiluaren webgunean (<https://www.crl-lhk.eus/eu/>) kontsulta daiteke– eta 2026ko lehen bost hilabeteetako datuen aurrerapenean.

Izan ere, orokorrean ziurgabetasuna badago ere, negoziazioak bizirik dirau, nahiz eta hitzarmenak eguneratuta dauzkaten langileen ehunekoa aurreko urtean erregistratutakoaren azpitik egon. Egoera hori, funtsean, 86.000 langileri baino gehiagori eragiten dieten akordioen indarraldia 2025ean amaitu izanaren ondorio da. Akordio horiek gaur egun negoziatzen ari dira, besteak beste, Arabako eta Bizkaiko industria siderometalurgikoarenak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, 2026. urtean, sektoreko 8 akordio lortu dira, eta akordio horiei esker, ia 22.000 pertsona baldintzak eguneratu ahal izan dira. Akordio horien artean, honako hauek aipatu behar dira: Arabako Ostalaritzakoa (5.700 enplegatutik gora), Eusko Jaurlaritzako ikastetxeetako eskola-jantokietako kolektibitate-enpresena (4.200 enplegatutik gora) eta eremu berri batena, EAEko sukaldaritza kolektiboarena (4.200 pertsonatik gora). Akordio horiei EAEn eragina duten estatu-mailako 15 hitzarmen gehitu beharko litzaizkieke. Hitzarmen horiek, oro har, 11.000 langileri eragingo diete, gutxi gorabehera.

2026an indarrean dagoen hitzarmenen **batez besteko soldata-igoerari** dagokionez, igoera % 3,10ekoa izan da, honela banatuta: % 3,20ko igoera EAEn negoziatutako hitzarmenetan eta % 2,87ko igoera EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan.

Enplegu-erregulazioko espedienteek 2.814 pertsonari eragin zieten maiatzera arte. Kopuru hori aurreko urteko aldi berean izandako kopuruarekin alderatzen bada, ikus daiteke % 15,3ko jaitsiera izan dela; izan ere, enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpeko pertsonen kopurua (-% 10,1) ez ezik, murrizketa-espedienteen eraginpekoena (-% 40) eta etete-espedienteen eraginpekoena ere jaitsi egin dira (-% 5,5).

Gatazkei dagokionez, adierazi behar da 2026ko urtariletik apirilera gora egin zuela greba kopuruak, baina grebetan parte hartu zuten pertsonen kopuruak nabarmen egin zuen behera (% 65,1 jaitsi zen), baita lan egin gabeko lanaldi kopuruak ere (aurreko urteko aldi bereko egun kopuruarekin alderatzen badugu, % 25,6 jaitsi zen).

Gizarte Segurantzaren afiliatutako pertsonen kopurua maximo historikoetan mantentzen da gure Erkidegoan: 1.044.686 pertsona ekainean, hau da, % 1,5eko igoera 2025eko ekainarekin alderatuta. Langabezia-tasa % 6,7koa zen aurtengo lehen hiruhilekoan.

2025eko itxiera

Gaur aurkeztutako LHKren txostenak EAEko egoera soziolaboralak 2025. urtean izan duen bilakaeraren azterketa zehatza jasotzen du. EAEko negoziazio kolektiboak lan-kontratua duten soldatapekoen % 93ri eragiten die. Gutxi gorabehera % 7k -48.000 pertsona inguruk- hitzarmen batek inoiz arautu gabeko jardueretan lan egiten du; gehienak etxeko langileak dira, 28.000 inguru EAEn.

Bada ezaugarri bereizgarri bat: garatzen den negoziazio kolektibo gehiena EAEn egiten da, eta sektoreko hitzarmenek garrantzi handia dute. Zifra zehatzetara jota, EAEko langileen % 74,4k sektoreko negoziazio kolektiboaren babesa du, eta gainerako % 25,6a enpresa-hitzarmenen eraginpean dago.

2025. urtearen amaieran, EAEko soldatapekoen % 63,8k eguneratuta zituzten hitzarmenak, % 31,7k akordioak luzapen-egoeran zituzten, eta % 4,5ek baino ez zeuzkaten hitzarmenak iraungita eta estaldurarik gabe. Nahiz eta 2025eko ekitaldia ixtean hitzarmenak eguneratuta zeuzkaten pertsonen kopurua aurreko urtekoa baino txikiagoa izan zen, egoera hau aurreko urteetako hoberenetako bat da, iraungita zeuden hitzarmenak zituzten soldatapekoen kopurua hamarren bat jaitsi baita: % 4,5.

Negoiazio sektorialean akordioak prestatzeko aldia luzea da (548 egun), enpresa-hitzarmenetako negoziazio-prozesuen iraupena (330 egun) baino askoz luzeagoa. Sektoreko hitzarmenen barruan, EAEn negoziatutako hitzarmenek dituzte prozesu luzeenak, 778 eguneko iraupena baitute batez beste; EAEn eragina duten, baina estatu-mailan negoziatzen diren hitzarmenen kasuan, aldiz, 403 egunekoak dute.

“Negoiazio kolektiboa aurrera doa, eta hori berri ona da egungo ziurgabetasun-egoeran, baina mahai gainean dugun erronka handienetako bat da negoziazioa arintzea eta eraginkorragoa eta jasangarriagoa izan dadin lortzea; izan ere, aldaketak eta ezegonkortasuna nabarmentzen diren testuinguruetan, beharrezkoa da prozesuari arintasun eta malgutasun handiagoa ematea, pertsonen errealitatearekin bat etorriko diren hitzarmen onak bermatzeko”, adierazi du Emilia Málaga Pérezek, LHK-ko presidentek.

2025ean, EAEn indarrean dauden hitzarmenetan itundutako batez besteko soldata-igoera % 3,32koa izan zen, honela banakatuta: % 3,21eko batez besteko igoera EAEn

negoziatutako hitzarmenetan eta % 3,57ko igoera EAEn eragina duten estatu-mailako hitzarmenetan.

EAEn aplikatu beharreko batez besteko lanaldia, indarrean dauden hitzarmenak eta luzapen-egoeran daudenak kontuan hartuta, ia 1.685 ordukoa izango litzateke, hau da, astean 37 ordu inguru. EAEn negoziatutako hitzarmenetan, batez besteko lanaldia 1.666,5 ordukoa da, eta EAEn eragina duten estatu-mailakoetan, 1.726,6 ordukoa.

Bestalde, greba kopuruak kontuan hartzen baditugu, lan-gatazkek behera egin zuten 2025ean, (208 greba; 2024. urtean, aldiz, 260), baina lan-gatazkek eragindako langileen kopurua % 21,3 igo zen, eta lan egin gabeko lanaldiak % 57,3.

2025ean, greba-deialdietan parte hartu zuten langile gehienek administrazioan lan egiten zuten. Zehazki, greba-deialdietan parte hartu zuten pertsona guztien % 75,7k sektore publikoan lan egiten zuten, eta sektore horretan lan egin gabeko lanaldiak guztizkoaren % 74,7 izan ziren.

Enplegu-erregulazioko espedienteek (EEE) eragindako langileen kopurua % 29,7 jaitsi zen, eragindako 6.679 langile izan baitziren. Langile gehienak (% 82,1) aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteek (ABEEE) eragindakoak ziren arren, lan-harremana amaitzeko prozedurek eragindako enpleguak aurreko urtekoak baino gehiago izan ziren, 2024an eragindako 927 langile baitziren, eta 2025ean, aldiz, 1.198.

LHK-k egindako lanari dagokionez, 2025ean 1.018 bilera egin ziren bere egoitzetan, negoziatio-batzordeak, batzorde paritarioak eta Laneko Gatazkak Ebazteko Borondatezko Prozedurak kontuan hartuta. *“Txostenaren irakurketa zuzena egiten badugu, ezin gara triunfalista izan, ezta ezkorrak ere: pozik egoteko arrazoiak daude eta exijitzeko aukera ere badago. Gure aldetik, datu aldakorrek hurbiletik jarraituko ditugu, eta lanean jarraituko dugu lan-harreman onak lortzen laguntzeko gure lanarekin, lan-harreman horien bidez gizarte osoarentzat kalitatezko enplegua eta bizi-kalitatea ziurtatzeko”,* adierazi du Emilia Málaga LHK-ko presidentek.

Lan Harremanen Kontseiluari buruz

Lan Harremanen Kontseilua EAEko erakunde publiko bat da, sindikatu- eta enpresa-konfederazioen arteko elkarrikitarako eta etengabeko topaketarako organo gisa eta Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren arlo sozioraboreko kontsulta-organoa gisa eratua. Nortasun juridiko propioa du, eta independentzia osoa jarduten du bere eginkizunen garapenean. 14 kidek osatzen dute: 7 kide sindikatuak izendatzen dituzte eta beste 7 EAEko enpresa-konfederazio adierazgarrienek. Gainera, presidentea eta idazkari nagusia LHK-ko kide dira.

“Egoera Ekonomikoa eta Lan Harremanak EAEn 2025ean” txosten osoa eskuragarri dago LHKren webgunean: <https://www.crl-lhk.eus/eu/>

PRENTSA-KABINETEA:

Irma Cerro Serna (MBN Comunicación)

Tel.: 94 435 63 30 / 628 538 215 irmacerro@grupombn.com